

Familiako Zaintzailearen Senitartekoak eta ingurune soziala

Familiako zaintzaileak aurre egin beharreko arazoak

- Mendekotasun – egoeran dagoen pertsonaren beharrak eta familiako zaintzaileak eskaintzen dion denbora bat ez etortzea.
- Neke fisiko eta mental handia.
- Lana utzi beharra.
- Denbora librea murriztea.
- Harremanak murriztea, bai familiakoekin, bai gizarte – ingurukoekin.
- Egun osoa mendekotasun – egoeran dagoen pertsonarentzako hartzea.
- Norbere burua uztea, gogo aldetik eta fisikoki.
- Gizartetik isolatzea.
- Ordezkatzeko inor ez izatea.
- Baliabide ekonomiko propioen falta.

Egoera berriko lehen pausoak

Mendekotasun – egoerarekin behar bezala bizitzeko, onartzea da lehen pausoa. Pauso horretara iristeko, mendekotasun – egoeran dagoen pertsonaren zein familiako zaintzailearen beharrak aztertu behar ditutu, bietako inorekin ahaztu gabe.

Bi alderdi garrantzitsu izan behar dira kontuan: mendekotasun maila eta egoeraren iraupena.

Konfiantzako pertsonak izan behar ditu familiako zaintzaileak (beretzat eta mendekotasun – egoera dagoen pertsonarentzat konfiantzazkoak direnak), eginbehar guztietan ordezkatu ahal izan dezaten. Hala, etxean ez dagoenean (egun batzuetan bada ere), mendekotasun – egoeran dagoen pertsona ez du okerrago egingo, eta familiako zaintzailea ere ez da urduri egongo.

Mendekotasun larria duten pertsonen ardura batek bakarrik duenean, zaintzaile horrek hurbilekoei erakutsi behar die (beste biri, gutxienez) zaintzailearenak nola egin, eta mendekotasun – egoeran dagoen pertsonarekin behar bezalako harremana nola izan. Bestalde, zaintzaileak pentsatu egin behar du noizean behin baina maiz beste norbaitek ordezka dezakeela, lagunekin egoteko eta lanean edo aisialdian sortutako harremanei eusteko. Une horietan ihes egiten du, eta bere buruari eskaintzen dio arreta; horregatik, behar – beharrezkoak dira besteak ongi zaintzeko.